




GURE ONDARIA ZAINDDU GURAN

Nok eztau ezaguketan Oñatin presaren bat? Zein ezta presagain edo presazpitan ibilli udako bero sargorixa arinketako? Zenbat neska mutil etorten xaku inguruko herritatik **Usakoko** presapera, eguzkixak sakaketan dauenian? Usakokua bihurtu da azkenaldi honetan baiñulekurik famauena eta egogixena, baiña orain dala urte gutxirate beste presa-inguru asko egozen Oñatin igarileku eta jolasleku moduan ebalten ziranak: adibidez, **Jardinazpi** edo **San Pedroko** presia, **Zuazola**, **Albarritza** eta **Miruerrekakua**, Artixa errekekakua bakarrik aittaketarren.

Gauza jakiña da zertarako jasoten zan Euskal Herrixan hainbeste presa. Guria lako paraje euritsuan errekarik txikiñenak be ur ugari ekarten dau eta, bestelako energia-iturri asko ezta kogunez, uraren indar hori ondo aprobetxaittia komeni zan. Errotak, olak, fanderixak eta beste industria batzuetako makiñak mobaiitteko izugarritzko obrak buruketan zittuain antxiñako euskaldunak: zurezko presak hasieran, harlanduzkuak geruago, urak ba-tzeko; kanal edo malatuak —sarrittan oso luziak— urok errota eta oletaraiño eruateko; eta andapara zabalak urari saltua eragin eta errotok eta olok mar-txan jarteko. Lanbide honeitan



Madalenako presia

PRESAK

benetako maixuak be izan ziran euskaldunen artian: *Maquinas hydraulicas de molinos y berrerias* (1736) liburu ezaguna eskribidu eben Pedro Bernardo Villarreal de Berriz mondraguetar-lekeittiarra, esate baterako.

KONTZEJUPETIK aldizkarixaren 3. numeruan gure menderarte heldu diran erroten izenak aittaketan gituan; eta ixa errota guztiak heuren zeregiñari itxi baxaue be, presa gehixenak tente irauten daue oraind-

diok, andaparak ez hainbeste, eta malatuak, berriz, oso hondatuta dagoz. Gorago Artixa errekan ikusi geinkien batzuk ekarri dittugu gogora, baiña horreittaz gaiñera garai, tankera eta taixo oso ezberdiñetako presa pillia topau leike Oñatiko udalerrri barruan. Hona hemen horrein arteko batzuk: San Prudentziotik San Pedroko zubiraiño, **Elorregikua** Aumategi parian, **Fanderixakua** Osinurdin baiño beheratuago, **Zubillagakua** errota ondo-onduan, **Zubillagako olakua**, berriz, ixa

kilometro bat gorago, Madalena eta Garibai auzuen artian, **Garibaikua** errota inguruan; eta Kale errekan gora **Errotabarri**, **Kale zahar** (Olalde), **San Martin** (Arrue), **Liñantzibar**, **Urtxipi** (Murgiko errota), **Santa Krutz**, **Tokillo**, **Ugarkalde** (Olakua), **Olabarrieta**, etab., etab., Urruxola, Araotz eta Arantzazukak kontau barik.

Gauza askorekin pasaiten daren antzera, presak be ebali ezian apurtu eta hondatu egitten dira. Presairi, zubixairi letxe, erasan galanta egitten doste uraundixak. Lehena go, baiña, apurtu ahala konpondu egitten zittuain, lanerako bihar-biharrezkuak ziran eta. Orain, ostera, balixo kulturalairi bihar aiñako inportantziarik emuten ezstogulako, egunetik egunera ikusten dihardugu zela hondaketan diran oso denbora gutxitan 500 urte baiño gehixago dakoin presa eta malatuak. Hor dago, esaterako, **Madalenako presia**, Zubillagako olarako XV. mendian eraiki eta, konponketa askoren ondoren, gaur egunerarte allegau xakuna; igazko uramilletan kalte haundixak izan zittuan eta, ezpaxako erremedixorik aguro billaketan, Oñatiko arkeologia industriallak dakon pitxirik interesgarrixenetako bat betiko fango xaku. Laister etorriko dira zortzi urte Zubillagako oliaren aztarrena inportantiak bota zirala, Industrialdia jasoteko; Madalenatik Zubillagarako malatuaren arrasto batzuk geldittu arren, oso egoera txarrian dago eta edozein egunetan galduko da; eta Madalenako presia zainketan ezpada, konturatu orduko, gure historixiaren beste zati eskuraezin batek iges egingo dosku. Eta ez pentsau Madalenako kasua bakarra danik: bestiak beste, San Juan kaleko zerran geraketan dan **San Migel errotiaren andaparia** (XV. mendekua, gutxienez, hau be) konserbaitteko ezer egitteko asmorik badago? Bidebarrietako etxiak jasotakuan, errota horretara etorren malatu luziaren pusketa bat, behintzat, testigu moduan gordeterik eztago?

Jerardo Elortza

TALLERES OLA

BERGARA
Tfnoa: 943- 76 33 44 - 46

ARRASATE
Tfnoa: 943 - 79 05 86

CONCESIONARIO OFICIAL

FATEA
gaña

dua

oketa
S-949

ÑATI

6 Martxo